

UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Behor esnearen ezaugarritze nutrizionala: Gantz azidoen profila

Egilea

Maddi Garmendia Oronoz

Gradua

Elikagaien Zientzia eta Teknologia

Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 3. Osasuna eta ongizatea,
- 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak,
- 15. Lehorreko ekosistemetako bizitza

Laburpena

Egun, elikadura osasuntsua eta ingurumena errespetatzeko joera ugari daude, eta behor esnea bezalako elikagai batek garrantzi handia izan dezake arlo horretan. Behor esnearen karakterizazio nutrizionala aztertzeak eta, zehazki, gantz azidoen profila zehazteak abantaila ugari dakartza, ikerketa esparruan ibilbide urria duen gaia baita. Horiek horrela, Euskal Herriko Mendiko Zaldi arrazako behorretatik eratorritako esnearen azterketa nutrizionala, aldakortasun faktoreak eta ingurumeneko eragina aztertzen da lan honetan. Gantz azidoen profila zehazteko gas kromatografia erabili da Aldai et al., (2012)-k proposatutako metodoaren arabera. Gantz azidoen analisiak zehaztu du behor esnean aurkitzen diren gantz azido nagusiak, azido kaprikoa (% 6,38; 10:0), azido laurikoa (% 6,93; 12:0), azido miristikoa (% 7,02; 14:0), azido palmitoleikoa (% 6,00; 9cis-16:1), azido oleikoa (% 16,95; 9cis-18:1), azido linoleiko (% 8,94; LA, 18:2 n-6) eta linolenikoak (% 16,19; LNA, 18:3 n-3) direla. Bestalde, aldakortasun faktorea gantz azido aseetan laktazio fasea da eta asegabeetan ustiapen sistema desberdinak. Analisi honen bitartez, laktazio faseak eta ustiapen motak gantz azidoen profilean eragina dutela zehaztu da.

Behor esnearen ekoizpena eta orokorrean, zaldi ekoizpena oso jasangarria da beste espezien ekoizpenarekin alderatzen badugu. Izan ere, FAOk estimatzen du metano gasen isurkinen % 73a behiek eragiten dutela eta zaldiek aldiz, soilik % 1,1a. Era berean, Euskal Herriko Mendiko Zaldi arrazaren Federazioaren bitartez lortu direnez laginak eta hauek Euskal Herriko ekoizpena sustatzen dute, animalien ongizatea bermatzen dute eta ingurumena errespetatzen duen ekoizpena bultzatzen dute. Proiektu honen bitartez, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) betetzen dira, izan ere, aztertu dudan elikagaiarekin, elikadura osasuntsua (3. GIH), ekoizpen arduratsua (12. GIH) eta lurreko ekosistema errespetatzea (15. GIH) betetzen dira. Alde batetik, literatura zientifikoak elikagai oso osasuntsu modura deskribatzen du, izan ere, konposatu esentzial gutziak ditu (proteina, gantz azidoak, karbohidratoak, mineralak eta bitaminak) eta biztanleriaren talde jakin batzuentzako (jaioberriak eta pertsona helduak) abantaila ugari izan ditzake. Bestetik, Euskal Herriko ekoizpena sustatu egiten da eta ekoizpen estentsibo bat jarraitzen denez, arduraz ekoizten dela ziurtatzen dugu. Amaitzearen, Euskal Herriko Mendiko zaldi arraza, Euskal Herriko mendietan era estentsiboan hazten direnez, zaldiek mendiko belar sukoiak jaten dituzte suteak ekidinez eta mendiko paisaia mantentzen lagunduz. Honela, lurreko ekosistema errespetatzen da.